



KLIMA ALDAKETARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA

Zioen azalpena

Klima-aldaketa gure gizarteak gaur egun aurre egin behar dion erronkarik handienetakoa da. Nazio Batuen 1992ko Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmena izan zen klima-aldaketaren arazoari nazioarteak emandako lehenbiziko erantzuna, eta Kiotoko Protokoloa eman zuen ondorio, 2012. urtera arteko lehenbiziko plana, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioaren hazkundera mugatzea asmo duena.

Nazioarteko esparru horretan, Europako politiken jomuga izan da ekonomia-jardueraren hazkundera eta energiaren kontsumoa, hala azken kontsumoa nola primarioa, bereiztea, horrek aukera ematen baitu BPGa eta enplegua hazteko eta aldi berean energiaren kontsumoa eta gasen emisioak murrizteko. Petrolio arruntaren produkzioa goia jo hurren izatea eta horrek erregai fosilen prezioaren garestitzean duen eragina pisuzko argudioak dira politika horien norabidea zein izan behar den zehazteko.

Hala, 2007ko martxoko Europako Kontseiluak konpromiso batzuk hartu zituen, hain zuzen ere 2020rako berotegi-efektuko gasen guztizko emisioak gutxienez % 20 murriztea oinarri-urtearekiko (1990), beharizanen % 20 energia-iturri berriztagarriez asetzea eta eraginkortasun energetikoa % 20 areagotzea. Gerora, 2008ko abenduko Kontseiluan ados jarri ziren klimaren eta energiaren inguruan hartu beharreko neurri-multzoari buruz. Bestalde, Europan berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen merkatu bat sortu da eta haren funtzionamendua arautu da.

Espainiar Estatuan, bestalde, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Estrategia bat garatu da, berotegi-efektuko gasak murrizteko sei ildo estrategiko zehaztu dituena: hondakin eta simaurren kudeaketa; mugikortasun iraunkorra; eraikuntza iraunkorra; iraunkortasun energetikoa; basogintza-politika eta, azkenik, hustubideak eta berrikuntza.

Une honetan, eskualdeok berebiziko ekarpena egin dezakegu klima-aldaketaren kontrako borrokan. Europako Eskualdeen Kontseiluak aitortzen duenez, "eskualdeek, antzeko mehatxuei aurre egin behar baitiete eta aukera berdin-berdinak baitituzte, zeregin garrantzitsua dute, beren arteko trukeak eta lankidetzaz aprobetxatuz, klima-



aldaketaren aurkako borrokan, nazioarteko, Europako eta Estatuko politikekin batera.”

Klima-aldaketaren aurkako Euskal Autonomia Erkidegoko politikaren xedeak izan behar du gas-emisioak gutxitzea, apurka-apurka karbono gutxi erabiltzen duten teknologia berritzaileetan oinarritutako ekonomia baterantz joz; teknologia horiek gauza izan behar dute enplegu berdea sustatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko. Halaber, politika horrek sendotu egin behar du Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-inguruneak nekazaritza-garapenerako ereduak izan behar duen zereginak, nekazaritza-ingurune hori funtsezko osagaia baita berotegi-efektuko gasen emisioa mugatzen eta lurzoruak karbonoaren hustubide gisa duen eginkizunari eusten laguntzeko. Horrek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ongizate-maila igotzea ekarriko du.

2009ko uztailaren 6ko Urdaibaiko Adierazpenak eredu hori nahi du Euskadirako, eta eredu horretan lehentasun bat da klima-aldaketaren aurkako borroka. Karbono gutxiago baliatuko duen ekonomia baterako trantsizioa, “plan sektorialak integratzeko eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegi integrala eratzeko gaitasuna duen hazkunde-eredu berde baterako aldaketa” da, hain zuzen, adierazpen horren eta Eco-Euskadi 2020 plataformaren ardatza; “Ekonomiaren desmaterializaziorako joera izango duen ereduak, ekoeraginkortasun handiagoa izatearekin batera gure gizarte-ongizatearen zutabe garrantzitsua izango den enplegu berdea sortuko duena.”

Klima-aldaketaren lege honek kontuan hartzen ditu aurretik aipatutako erreferentziak, eta energiaren alorrean, garraioan, lurralde-antolamenduan, hirigintzan, etxebizitzan, hezkuntzan edota nekazaritzan zeharka eragin nahi du, azaldu den eredu ekonomikorako bidean beharrezkoa den aldaketa estrukturala bultzatzeko; bide batez, ezagutza, sentsibilizazioa, partaidetza eta berrikuntza sustatzeko baliabideak garatu nahi ditu, klima-aldaketaren alorreko jarduna aukera moduan ikusarazteko.

Bestalde, oharturik klima-aldaketa fenomeno globala dela eta haren ondorio larrienak seguruenik eskualde behartsuenek pairatuko dituztela, garapenerako lankidetzapolitikak klima-aldaketaren ikuspegia txertatu behar du bere jardunean.

Zeregin horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak lidergoa bere gain hartu du, eta horrek herri-administrazio guztiek parte hartu beharra dakar, nor bere lurralde- eta eskumen-esparrutik, betiere elkarren arteko erantzukizunez eta elkarlanean arituz. Legeak, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-eragile guztiek parte hartzea lortu nahi du, bakoitzak bere erantzukizun-eremutik ekarpena egin dezan, aurreztea eta kontsumoa murriztea oinarri dituen kultur paradigma baterantzko aldaketa



gauzatze bidean; karbono gutxiago baliatuko duen euskal ekonomia bateranzko eta klima-aldaketara egokitzeko prest egongo den gizarte bateranzko trantsizioa litzateke hori.

Eskumen-tituluei dagokienez, lege hau ingurumenaren arlokoa da funtsean. Xedeak ematen dio izaera hori, ezinbestean. Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 11.1.a) artikulua aipatu beharra dago hemen, Espainiako Konstituzioaren 149.1.23 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Nolanahi ere, ezarritako helburuak eta xedeak erdieste aldera lege honetan onartzen diren neurriak oinarri hartuta, eta gaiak berak duen zeharkako izaera dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10. artikulua 7., 9., 16., 25., 30., 31. eta 32. paragrafoak dira hemen aipatu beharrekoak, bai eta 11. artikulua 2.c) idatz-zatia eta 16. artikulua ere.

Orain arte azaldutakoaren haritik, Klima Aldaketaren Legeak helburu bikoitza du: alde batetik, berotegi-efektua duten gas-emisioak murriztea, eta, beste alde batetik, arlo horretako egokitze-politiken esparrua ezartzea. Horretarako, legeak, atariko kapituluaren helburua, termino nagusien definizioak eta aplikazio-eremua jasotzen ditu.

Lehenbiziko kapituluaren barruan, honako hauek arautzen dira: herri-administrazioek klima-aldaketaren arloan dituzten eskumenak, zehazki esanda, Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloan eskumena duen sailari esleitzen zaizkionak; eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa, Eusko Jaurlaritzak klima-aldaketari buruzko politikari buruz dituen eskumenak koordinatzeko sail arteko organo gisa eratua.

Halaber, legeak agintzen du Euskal Autonomia Erkidegokoaren Ingurumen Batzordearen barruan eta Euskal Autonomia Erkidegokoaren Ingurumenerako Aholku Batzordearen barruan lantalde espezializatuak sortzea.

Legearen bigarren kapituluaren barruan, legeak Klima Aldaketaren Euskal Plana eratzen du, klima-aldaketaren ondorioak biguntzeko eta klima-aldaketari egokitzeko autonomia-erkidegoak eramango duen politika artikulatzeko funtsezko tresna gisa.

Halaber, kapitulu honetan, plan horrek ezartzen dituen helburuak nola betetzen diren zaintzeko aldizkako txostenak egiteko betebeharra ezartzen da.

Hirugarren kapituluaren barruan, berotegi-efektuko gasen emisioaren murrizketa arautzen da, eta aurreikuspenak ezartzen murrizketa-helburuen inguruan, une bakoitzean indarrean diren nazioarteko, Europako eta Espainiako tresnak kontuan hartuz.



Hala, herri-administrazio bakoitzaren arabera zehaztutako helburuak bihurtzen dira berotegi-efektuko gasen emisioak herri-administrazioen artean banatuz legean eta planean ezarritako helburuak erdiesteko mekanismoa.

Laugarren kapitulua emisioen murrizketaren helburuak eta helburu horiek erdiesteko neurriak integratzeko moduari buruz ari da, klima-aldaketaren ikuspegia herri-administrazioen politika guztietan sartuz erdietsi nahi baitira.

Hala, bada, hainbat xedapen jasotzen dira energia-sektoreari -energia aurrezteak eta eraginkortasun energetikoak, bai eta energia berriztagarriek ere, emisioak gutxitzeko orduan duten ahalmena dela eta-, eraikingintza eta eraikuntza iraunkorrari, hiri-inguruneari eta hirigintza- eta lurralde-planeamenduari, garraioari, hondakinen kudeaketari, sistema naturalei eta baso-, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari buruz.

Bosgarren kapituluak emisioak gutxitzeko modua ematen duten tresnak zehazten ditu: produkzio-prozesuetan teknologiak sustatzea, berotegi-efektuko gasen nahitako murrizketen erregistroa (erregistro horren funtzionamendua erregelamendu bidez garatuko da) eta planen, programen eta proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioa, klima-aldaketaren gainean dituen eraginaren analisia nahitaez eduki beharko duena.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan karbonoaren hustubideen kudeaketarako proiektuen garapena bideratzeko sistema bat sortzea aurreikusten da, bai eta lege honetan eta Klima Aldaketaren Euskal Planean aurreikusitako helburuak lortzeko pizgarri publikoak ere.

Seigarren kapituluan, Klima-aldaketara Egokitzeko Programa egiteari buruzko aurreikuspenak jasotzen dira. Programa horrek planaren zati izan behar du, eta legeak ezarritako lehentasunezko helburuei erantzun beharko die.

Legearen zazpigarren kapituluan, herri-administrazioek hezkuntzan, ikerketan eta garapenean eta berrikuntzan dituzten eskumenak baliatuz egiten dituzten jarduketak arautzen dira, betiere emisioak murrizteko eta klima-aldaketari egokitzeko beste aukera batzuen aldean aurrerapena dakarten teknologiak eta prozedurak, produktuak eta zerbitzuak eta kudeaketa-metodoak zein diren zehazte aldera.

Zortzigarren kapituluak informazio eta parte-hartze publikoa izateko eskubidea arautzen ditu, bai eta herritarrek planetarekiko maitasuna eta errespetua izateko jarrera eta planetakide izateko sentimendua sustatzea, hala, klima-aldaketa zer den hobeto ulertzeko eta iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko behar diren aldaketak demokrazia-bidez egiten parte hartzeko gaitasunak areago garatzeko.



ATARIKO KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Legearen helburua.

1.- Lege honen helburua da berotegi-efektuko gasen emisioa murriztea Euskal Autonomia Erkidegoan.

2.- Halaber, lege honen xedea da klima-aldaketak izan ditzakeen eraginei hobeto egokitutako lurraldea lortzea, eta, horretarako, egokitze-politikak eskura dagoen ezagutza zientifikoaren arabera planifikatzeko eta betearazteko esparrua ezartzea.

2. atala.- Definizioak.

Lege honetan xedatutakoetarako, hona hemen nola ulertu behar diren termino hauek:

a) "Klima-aldaketara egokitzea": natura-sistemetan edo giza sistemetan, aurreikusitako edo gertatutako klima-estimuluei edo haien eraginei egokitzeko egin beharreko doiketa, kalteak gutxitzeko edo alderdi onuragarrieti etekina ateratzeko balio dezakeena.

b) "Klima-aldaketa": klimaren aldaketa, zuzenean edo zeharka, giza jarduerari egozten zaiona, munduko atmosferaren osaketa aldatzen duena, eta aldergarri diren denbora-tarteetan zehar behatutako klimaren aldagarritasun naturalari gehitzen zaiona.

c) "Emisio-eskubideen merkataritza": 2003/87/CE Zuzentarauak eraturako sistema, Erkidegoan berotegi-efektuko gasen emisioen gaineko eskubideen merkataritzaren araubidea ezartzeko.

d) "Erosketa eta kontratazio publiko berdea": ondasunak eta zerbitzuak erostea edo kontratatzea, ez irizpide ekonomiko edo teknikoei erreparatuta bakarrik, baizik eta kontuan hartuz erabilitako edo eskuratutako material eta produktuekin lotutako ingurumen-alderdiak, kontratuak betetzeko metodoak eta prozedurak, eta hornitzaileen eta fabrikatzaileen ingurumen-jokaera.

e) "la energiari kontsumitzen ez duen eraikina": eraginkortasun energetikoaren maila oso handia duen eraikina. Behar duen energia apur-apur hori, neurri handi batean, iturri berriztagarrietatik sortutako energiak hornitu behar luke, in situ edo ingurunean sortuak.

k) "Eraginkortasun energetikoa": errendimendu, zerbitzu, ondasun edo energia baten produkzioaren eta energia-gastuaren arteko erlazioa.

g) "Eraikinaren eraginkortasun energetikoa": Eraikinaren erabilera normalari lotutako energia-eskaera asetzeko behar den energia-kantitate kalkulatu edo neurtua;

erabilera normal horretan sartuko da, gutxienez, berogailu, hozte-sistema, aireztatze, ur-berotze eta argiztapenean kontsumitutako energia.

- h) "Emisioak": Atmosferara berotegi-efektua duten gasak jaregitea, zuzenean edo zeharka giza jardueraren mendeko diren sorguneetatik.
- i) "Iturri berriztagarrietatik sortutako energia": iturri berriztagarri ez-fosiletatik eratorritako energia (hau da, energia eolikoa, eguzki-energia, aerotermikoa, geotermikoa, hidrotermikoa eta ozeanikoa, hidraulikoa, biomasa, zabortegiko gasak, arazte-plantako gasak eta biogasa jatorri dituena).
- j) "Gas fluorduna": Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1005/2009 Erregelamenduaren I. eranskineko (2009ko irailaren 16koa) I., II., III., VII., VIII. eta IX. taldeetan zerrendatutako substantziak, bai eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 842/2006 Erregelamenduaren (maiatzaren 17koa) I. eranskinean zerrendatutako substantziak ere, substantzia horiek dituzten fluidoan nahasteak barne.
- k) "Berotegi-efektuko gasak": Karbono dioxidoa (CO₂), metano gasa (CH₄), oxido nitrosoa (N₂O), azufre hexafluoruroa (SF₆), perfluorokarbonoak (PFC) eta hidrofluorokarbonoak (HFC).
- l) "Klima-aldaketa leuntzea": Berotegi-efektuko gasen iturriak murrizteko edo gas horien hustubideak hobetzeko esku-hartze antropogenikoa.
- m) "Mugikortasun iraunkorra": Denbora eta kostu arrazoizkoarekin erdiesten den mugikortasuna, ingurumenaren eta pertsonen bizi kalitatearen gaineko eragin negatiboak eta garraioaren kostu soziala minimizatzen dituena.
- n) "Kanpo-argiztapenaren eraginkortasun energetikoa erregulatzeko araudia": Azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuak edo haren ordezkoko araubideak onartutako araubide juridikoa. Errege Dekretu horren bidez onartu zen energia-eraginkortasuneko erregelamendua kanpo-argiztapeneko instalazioentzat, eta haien EA-01 eta EA-07 bitarteko jarraibide tekniko osagarriak.
- ñ) "Milurtekoaren Garapenaren helburuak": Nazio Batuen Elkartearen Batzar Nagusiak 2000. urteko irailaren 8an onartutako helburu eta xedeak, "Milurteko Deklarazioa" izeneko ebazpenean jasotakoak.
- o) "Alkateen ituna": Europar Batasunak klima-aldaketaren aurka borrokatzeko tokiko agintariei begira bultzatutako ekimena; ekimen hori eraginkortasun energetiko handiagoz eta energia garbiagoa produzitu eta erabiliz CO₂ emisioak murriztu eta Europar Batasunaren politika energetikoa gainditzeko agintari horiek sinatutako konpromisoan gauzatzen da.
- p) "Kiotoko protokoloa": "Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren" (KANBEH) barruan sartzen den nazioarteko akordioa, Rio de Janeiroko Lurraren Goi-bileran 1992. urtean sinatua, k) idatz-zatian aipatzen diren berotegi-efektuko 6 gasen edo gas-familien murrizketa helburutzat duena.
- q) "Erresilientzia": sistema batek duen abilezia arriskuaren ondorioei modu egoki eta eraginkorrean aurka egin, absorbatu eta berreskuratzeko, betiere bere egitura, funtzio eta oinarrizko identitate nagusiak mantenduz edo leheneratuz.



r) "Karbono-hustubideak": Atmosferatik berotegi-efektuko gasa xurgatzen duen edozein prozesu, jarduera edo mekanismo.

s) "Urrakortasuna": klima-aldaketak zein mailatan honda edo kalte dezakeen sistema bat, klimarekiko sentsibilitatea eta baldintza berrietara egokitzeko gaitasunaren arabera.

3. artikulua.- Aplikazio-eremua.

1.- Lege honetako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoan berotegi-efektuko gasak sortu edo atxikitzen dituen jarduera orori ezarriko zaizkio, berotegi-efektuko gasen emisio-eskubideen merkataritza-araubideari buruzko araudian araututa egon ala ez.

2.- Lege honen hartzaile dira, eta, hala, lege honen xedapenetan ezarritakoa bete beharko dute herri-administrazioek eta sektore publikoko erakundeek, bai eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuek ere.

3.- Lege honen ondorioetarako, sektore publikoko erakundetzat hartzen dira herri-administrazioetako sektore publikoetako parte diren erakundeak, bai eta, administrazio bakoitzerako definitutako sektore publikoaren parte izan gabe, administrazioek edo erakunde instrumentalek elkarrekin kapital sozialaren % 50 baino gehiagoko partaidetza duten sozietateak ere.

LEHENBIZIKO KAPITULUA.- KLIMA ALDAKETAREN ARLOKO ESKUMENAK

4. artikulua.- Herri-administrazioek klima-aldaketaren aurka borrokatzeko dituzten eskumenak baliatzea.

1.- Herri-administrazioek lege honetan aurreikusitako eginkizunak beteko dituzte legean bertan ezarritako eran eta aplikatzekoak diren autonomia-erkidegoko gainerako arauetan eta Estatuko arauetan kasuan kasuko eremu edo sektore horietako bakoitzerako ezarritako eskumen- eta eginkizun-banaketaekin bat etorritik.

2.- Herri-administrazioek beren eskumenak baliatzerakoan klima-aldaketaren aurkako borroka txertatuko dute, bai emisioak murrizteko, bai aldaketa horrek ekar ditzakeen inpaktuetara egokitzeko; eta klima-aldaketari egokitzeko eta bere eraginak leuntzeko politikak gauzatuko dituzte hirigintzan, lurralde-antolamenduan, bide-azpiegituren eraikuntzan, garraioan, industrian, energian, nekazaritzan, mendietan eta natura-ingurunean, hondakinetan, ikerketan, hezkuntzan, osasunean, fiskalitatean eta garapenerako lankidetzan.

3.- Nolanahi ere, herri-administrazioek koordinazio, elkarlan, erantzukizun partekatatu, eraginkortasun eta gardentasunaren printzipioen arabera baliatuko dituzte



eskumen eta eginkizun horiek. Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak eta 8. artikulua aitazten dituen batzorde espezializatuek funtsezko zeregina izango dute printzipio horiek betetzean, klima-aldaketaren kontrako borrokan administratioko eta gizarteko arlo eta sektore batzuek eta besteek gauzatzen dituzten politikak, planak, proiektuak eta gainerako ekintzak sustatzeko, bultzatzeko eta horien eboluzioa zaintzeko organo gisa.

5. artikulua.- Garapenerako lankidetzeta eta klima-aldaketa

Herri-administrazioek, lege honen arabera klima-aldaketaren arloan dagozkien eskumenak eta eginkizunak betetzerakoan, Nazio Batuek onartutako Milurtekoaren Garapeneraren Helburuetan ezarritako xedeak lortzen lagunduko dute. Horretarako, administrazio horiek garapenerako lankidetzaren politikaren arloan egingo dituzten ekintzen artean, ezinbestean sartu beharko dira klima-aldaketa leuntzeko eta klima aldaketari egokitzeko jarduerak, eragile publiko eta pribatuekin elkarlanean.

6. artikulua.- Ingurumenaren arloan eskumena duen sailaren eginkizunak.

Berotegi-efektuko gasen emisioen gaineko eskubideen merkataritzaren araubidea arautzen duen araudiak xedatutakoaren arabera eta lege honek ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren gaineko eskumena duen sailari dagokio honako eginkizun hauek betetzea, besteak beste:

- a) Berotegi-efektuko gasen emisioen gaineko baimenak ematea berotegi-efektuko gasen emisioen gaineko eskubideen merkataritzari lotutako jarduerari.
- b) Emisio horiei dagozkien txosten egiaztatuak baloratzea.
- c) Bere eskumenerako gaitan zehapen-ahala erabiltzea.
- d) Klima-aldaketak koordinatzeko estatu-batzordean parte hartzea.
- e) Klimaren Estatu Kontseiluan parte hartzea.
- f) Kiotoko Protokoloko proiektuetan oinarritutako mekanismoen estatu-agintaritzara gisa diharduen batzordean parte hartzea.
- g) Klima Aldaketaren Euskal Planaren proposamena egitea.
- h) Eusko Jaurlaritzako beste sailek egindako plan estrategikoak integratzea, Klima Aldaketaren Euskal Planaren proposamena egiteko.
- i) Metodologia bat ezartzea, berotegi-efektuko gasen emisioak nola murrizten diren modu homogeneoan neurtzeko eta arlo horretako helburu eta proiektzioak ezartzeko.
- j) Emisioak murrizteko bana-banako helburuak zehazteko prozedura eta metodologia ezartzea.



- k) Lege honen 25. artikuluan ezarritako berotegi-efektuko gas-emisioen borondatezko murrizketen erregistroaren funtzionamendua, edukia eta inskribatzeko baldintzak ezartzea.

7. artikulua.- Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa.

Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak, Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloan eskumena duen sailari atxikitako kide anitzeko organo gisa, eta, Euskadiko Administrazio Orokorrari dagozkion eskumenen ikuspuntutik, honako eginkizun hauek beteko ditu:

- a) Klima-aldaketaren kontrako borrokari buruzko eskumenak dituzten organo guztien jarduerarako proposamenak egitea.
- b) Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloan eskumena duen sailak egingo duen EAEko Klima Aldaketaren Planaren proposamena ezagutzea.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politiken esparruan egindako arazuko aurreproiektu, plan eta programen berri izatea.
- d) Klima-aldaketara egokitzeko eta bere eraginak biguntzeko politikak nola betetzen diren zaintzeko lanak koordina eta gauza daitezela sustatzea; orobat Eusko Jaurlaritzak, Klima Aldaketaren Euskal Planean ezarritako jarraibideen arabera, eta urrakortasunari buruz, urrakortasunaren arrisku eratorriei buruz eta egokitze-neurriei buruz eskura dagoen ezagutzari kasu eginez, klima-aldaketaren kontra gauzatzen dituen jarduera guztiak.
- e) Berotegi-efektuko gasen emisioa gutxitzeko eta klima-aldaketari egokitzea sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sustatzen dituen sail arteko zeharkako jarduerak sustatzea.
- f) Komunikazio-bide eta lan-ildo iraunkorrak ezarriko ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarera atxikitako zentroekin eta hurrengo artikuluan arautzen diren batzorde espezializatuekin.

8. artikulua.- Batzorde espezializatuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordeak eta Ingurumeneko Aholku Batzordeak, organo aholku-emaileak biak, klima-aldaketaren kontra borroka egiteko batzorde espezializatu bana sortuko dute proposamen teknikoak eztabaidatu eta lantzeko, eta beren osoko bilkurei aurkeztuko dizkiete proposamenak.

BIGARREN KAPITULUA.- KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO EUSKAL PLANA

9. artikulua.- Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana.



1.- Euskal Autonomia Erkidegoaren klima-aldaketari buruzko politika Klima Aldaketaren Euskal Planean adieraziko da. Plan horretan, aldi bakoitzerako, lege hau aplikatzekoa den eremuetarako estrategia eta politika sektorialak jasoko dira.

2.- Plana Eusko Jaurlaritzak onartuko du, ingurumen arloan eskumena duen sailak proposatuta, eta ondoren Legebiltzarrera bidaliko da. Onartu aurretik, aholkua eskatuko zaie Klima Aldaketaren Euskal Bulegoari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Aholku Batzordeari, eta, era berean, izapidetzen den bitartean informazio publikoko epe bat izango da.

3.- Lege hau indarrean sartu ondoren onartzen den lehenengo plana, onartzen den alditik 2020ko abenduaren 31 bitartekoa izango da; berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburuak ezarriko ditu 2020. urterako, eta, horrez gain, 2050eko abenduaren 31rako aurreikusitako emisioen proiektzioa egingo du.

4.- Planaren oinarrizko edukia ondorengo hau da:

- a) Emisioak murrizteko helburuak.
- b) Energia aurrezteko helburuak eta energia berriztagarria sortu eta erabiltzeko helburuak.
- c) Emisioak murrizteko helburu banakatuak betetzeko programen edukiak, 13.3 artikulua bigarren lerrokan ezarritakoarekin bat.
- d) Klima-aldaketari egokitzeko helburuak.
- e) Klima-aldaketari egokitzeko programaren edukia, 31. artikulua ezartzen duenaren arabera.

10. artikulua.- Klima Aldaketaren Euskal Planaren jarraipena

1.- Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak, bi urterik behin, Klima Aldaketaren Euskal Planaren jarraipen-txosten bat egin beharko du, berotegi-efektuko emisioak murrizteko arloan helburuak betetzen ari diren ikusteko. Era berean, lau urterik behin, Bulegoak jarraipen-txosten bat egingo du klima-aldaketari egokitzearen arloan helburuak betetzen ari diren ikusteko. Klima Aldaketaren Euskal Plana onartzen denetik hasiko dira zenbatzen jarraipen-aldi horiek.

2.- Eduki hauek izan beharko ditu, gutxienez, emisioak murrizteko helburuen betetze-mailari buruzko txostenak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren emisioak, txostenak aztergai izan duen aldian.
- b) Emisioen bilakaera, aurreko aldiari dagokionez.



- c) Emisioen jarraipena egiteko beste adierazle batzuk, esate baterako, besteak beste, biztanle-kopurua edo BPG, beste herrialde edo eskualde batzuetako balioekin alderatuta.
- d) 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarritako bana-banako helburuak betetzen diren jakiteko ebaluazioa eta balorazioa, Klima Aldaketaren Euskal Planean jarritako helburuak lortzeari dagokionez.
- e) Garraioak eragindako emisioak murrizteko helburuen bilakaera.
- f) Energia aurrezteko helburuen eta energia berriztagarria sortu eta erabiltzeko helburuen bilakaera.

Txosten horri 14.2 eta 19.3 artikuluetan aipatutako txostenak gehituko zaizkio haren eranskin gisa.

3.- Eduki hauek izan beharko ditu, gutxienez, klima-aldaketari egokitzeko helburuen betetze-mailari buruzko txostenak:

- a) Aldi horretan, egokitzeari dagokionez garatutako ekintzak.
- b) Gauzatutako ekintzen arduradunak.
- c) Egokitzeko helburuen betetze-mailaren ebaluazioa.

4.- Planean ezarritako helburuen gainean egindako jarraipenaren ondorioz, onartzeko aurreikusi diren izapide berak erabiliz berrikusi ahal izango da Plana.

5.- Aurreko paragrafoetan aipatutako txostenak Eusko Legebiltzarrerera bidaliko dira, txostenak egin behar diren urtea bukatu baino lehen.

6.- Ingurumen-gaietan eskumena duen sailak Klima Aldaketaren Euskal Planaren proposamenean txertatuko ditu industria, energia, garraio, etxebizitza, obra publiko, ingurumen, biodibertsitate, nekazaritza, arrantza, lurralde-antolamendu, hirigintza, hezkuntza, ikerketa, osasun eta lankidetzarako garapenaren gaietan eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek 2020 bitartean egiten dituzten plan estrategikoak.

HIRUGARREN KAPITULUA.- EMISIOAK MURRIZTEKO HELBURUAK

11. artikulua.- Emisioak murrizteko helburuak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko 2020ko helburuak Klima Aldaketaren Euskal Planean zehaztuko dira, irizpide hauek aintzat hartuta:



- a) Euskal Autonomia Erkidegoko berotegi-efektuko gas-emisio historikoak.
- b) Nazioarteko araudia klima-aldaketaren alorrean.
- c) Klima-aldaketari buruzko estatu-politikak, Europako politikak eta nazioarteko politikak.
- d) Helburuek Euskadiko ekonomian, sektore jakin batzuen lehiakortasunean, enpresa txiki eta ertainetan eta lan-merkatuan izan dezaketen eragina.
- e) Helburuek zerga arloan, gastu publikoan eta zor publikoan izan dezaketen eragina.
- f) Helburuek herritarren arteko sektorerik ahulenetan edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskurik handiena duten horietan izan dezaketen eragina, eta, batez ere, emakumeen eta gizonen artean izan dezakeen eragin desberdina.
- g) Energia- eta garraio-politikak.
- h) Helburuek baserri-eremuetan bizi diren herritarren artean izan dezaketen eragina.
- i) Klima-aldaketari buruzko ezagutza zientifikoak eta teknologia garrantzitsuak.

12. artikulua.- Emisioen murriztea neurtzeko metodologia

Erregelamendu bidez, metodologia bat ezarriko da berotegi-efektuko gas-emisioen murriztea modu homogeneoan neurtu ahal izateko, eta arlo horretan helburuak eta aurreikuspenak ezartzeko, aurreko artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritz.

13. artikulua.- Emisioak murrizteko helburu banakatuak

1.- Klima Aldaketaren Euskal Planean berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko ezarritako helburuak betetzen laguntzeko, herri-administrazioek eta sektore publikoko erakundeek herri-administrazio bakoitzaren arabera zehaztutako helburuak ezarriko dituzte, eta, horrela, banatu egingo da helburu orokorrek eskatzen duten ahalegina.

2.- Herri-administrazio bakoitzarentzako helburuak herri-administrazio bakoitzak Euskal Autonomia Erkidegoan berotegi-efektuko gasak sortzen dituen sektoreetako bakoitzari buruz dituen eskumenen arabera ezarriko dira, sektore horri emisio orokorretan dagokion zatia eta etorkizunerako aurreikusitako egoeran izango duen jarduteko gaitasuna aintzat hartuz.

3.- Berariazko helburu horiek betetzea errazteko, herri-administrazioek eta sektore publikoko erakundeek klima-aldaketaren gaineko berariazko programak egin beharko dituzte, gauzatu beharreko jarduerak zehaztu ahal izateko, eta parte-hartze publikoa bermatuko dute programa horiek egiterakoan.



Beharrezkotzat joz gero, klima-aldaketari buruzko programen edukia Klima Aldaketaren Euskal Planean egingo diren berrikusketetan sartuko da.

4.- Klima-aldaketa biguntzearen inguruan Klima Aldaketaren Euskal Planean ezarritako helburuak lortzeari buruz Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak egiten dituen txostenetan, emisioak murrizteko herri-administrazio bakoitzaren arabera zehaztutako helburuen betetze-mailari buruzko balorazioa egingo da.

LAUGARREN KAPITULUA.- EMISIOAK GUTXITZEKO HELBURUAK POLITIKA SEKTORIALETAN INTEGRATZEA

14. artikulua.- Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea

1.- Administrazio publikoek eta sektore publikoko erakundeek, bakoitzak bere eskumenen barruan, energia aurrezte eta eraginkortasun energetikoa bultzatuko dute, baita energia kontsumitzen duten jarduera-sektoreetan karbono gutxiagoko erregaiak erabiltzea ere. Era berean, energia berriztagarriak sortzea eta erabiltzea bultzatuko dute, industria jardueretan, nekazaritza eta basogintza jardueretan, garraioan, bizitegirako eta zerbitzuetarako eraikinetan eta hiri-esparruan.

2.- Energia-politikak zehaztuko ditu energia aurrezteari dagozkion helburuak eta energia berriztagarriak sortzeari eta erabiltzeari dagozkion helburuak, bai eta zein jarduera-ildori jarraitu ere lege honekin bat etorriz; orobat Klima Aldaketaren Euskal Planean emisioak murrizteari buruz definitzen diren helburuak ere. Energia alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak, bi urterik behin, helburu horien jarraipen-txostena egingo du, eta txosten hori 10. artikuluan aipatutako Planaren jarraipen-txostenaren osagaietako bat izango da. Klima Aldaketaren Euskal Plana onartzean hasiko dira zenbatzen aipatutako epe horiek.

3.- Herri-administrazioek eta euskal sektore publikoko erakundeek, bakoitzak bere jarduera-esparruaren barruan, eraginkortasun energetikoa sustatzeko planak eta energia berriztagarrien produkzioa eta erabilera sustatzeko planak egingo dituzte, beren emisioak lege honetan agindutakoaren arabera murrizten laguntzeko. Plan horiek klima-aldaketaren gaineko programa propioen (13.3. artikuluan aipatzen dira) osagai izango dira.

4.- Energia eraginkortasunerako planak eta energia berriztagarriak sortu eta erabiltzeko planak, besteak beste, honako hauek lortzeko neurriak jasoko dituzte:



- a) Herri-administrazioek eta sektore publikoko erakundeek okupatzen dituzten eraikinei lotutako emisioak eraginkortasunez murrizten laguntzea.
- b) Energia asko kontsumitzen duten zerbitzuetan energia-kontsumoa murriztea eta kanpo-argiztapenean energia-eraginkortasuna hobetzea.
- c) Langileen mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- d) Ibilgailu eraginkorrak eskuratzea, esate baterako, elektrikoak edo hibridoak.
- e) Erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpideak txertatzea.

15. artikulua.- Kanpo-argiztapenaren energia-eraginkortasuna eta argi-kutsaduraren prebentzioa

1.- Kanpo-argiztapenari dagokionez -publiko zein pribatua-, legeak honako helburu hauek ditu:

- a) Gaueko orduen baldintza naturalak mantentzea, oro har ekosistemen mesedetan, eta batik bat balio astronomiko eta naturalistiko bereziko guneen mesedetan.
- b) Kanpo-argiztapenaren energia-eraginkortasuna bultzatzea, energia aurreztuz.
- c) Etxeetan kanpoko argia sartzea saihestea, eta argi-intrusio horrek eragindako eragozpen eta kalteak minimizatzea.
- d) Zerua ikusteko izaten den argi-kutsaduraren eraginak prebenitzea eta zuzentzea.

2.- Aurreko idatz-zatietan ezarritako helburuak lortzeko, herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan eta kanpo-argiztapenaren energia-eraginkortasunari buruzko araudian ezarritakoarekin bat, jardun egin beharko dute honako hauek bermatzeko:

- a) Betetzen direla erregelamendu bidez ezarritako baldintza teknikoak, kanpo-argiztapenaren instalazioen diseinu, gauzatze, martxan jartze eta mantentzeari buruzkoak.
- b) Energia-eraginkortasuna eta -aurrezpena kanpo-argiztapenaren instalazioetan.
- c) Betetzen direla kanpo-argiztapenaren instalazioen kalifikazio energetikoari buruzko araudien betebeharrak.
- d) Betetzen direla gaueko argien argitasunari eta kanpo-argiztapenaren instalazioetatik datorren argi sarkin eta gogaikarriari dagokionez arauz ezarritako mugak.
- e) Betetzen direla arauz ezarritako gehienezko luminantzia eta iluminantzia mailak eta baimendutako gutxieneko uniformetasuna, kanpo-argiztapen mota desberdinen arabera.
- f) Betetzen direla kanpo-argiztapenaren instalazioetarako ezarritako funtzionamendu-araubideak.



g) Egiten direla kanpo-argiztapenaren instalazioen hasierako eta aldian aldiko ikuskapenak eta egiztapenak.

3.- Artikulu honetan xedatutakotik salbuetsita daude meatzeetan bakarrik erabiltzekoak diren instalazio eta ekipoak, erabilera militarretakoak, trafikoa, balizak, itsasargiak, itsas seinaleak eta aireportuak arautzekoak direnak eta berariazko araudiaren mende dauden bestelako instalazio eta ekipoak. Lehenengo paragrafoan jasotako helburuak gorabehera, lehendabizi instalazio eta ekipo horien berri emango dute.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalek argi-kutsaduraren aurrean babes-maila zorrotzagoak jarri ahal izango dituzte, beren udalerrietan balio astronomiko eta naturalistiko berezia duten tokietan, eta plan bat onartu beharko dute lege honetako baldintzetara eta erregelamendu bidez ezarritakoetara egokitzeko, udalerrietan kanpo-argiztapen publikoa jartzeari dagokionez.

5.- Aurreko paragrafoan aipatutako egokitze-planak, besteak beste, honako alderdi hauek jasoko ditu:

- udalerriko kanpo-argiztapen publikoaren azterketa.
- egokitzeko egin behar diren jarduera zehatzak.
- egokitzapenen egutegia, argi-kutsaduraren eraginaren arabera.

16. artikulua.- Eraikingintza eta eraikuntza

1.- Herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumenen barruan eta Europako arauekin bat etorriz, ardura hartuko dute, eraikin berriak egiteko eta birgaitzeko proiektuetan eta urbanizazio-obrak gauzatzean, energia aurrezteko eta energia eraginkortasunez erabiltzeko neurriak har daitezen eta karbono gutxiagoko energia-iturriak erabil daitezen, batik bat energia berriztagarriak.

2.- Erregelamendu bidez, sistema bat ezarriko da industria-, merkataritza-, bizitegi-edo zerbitzu-erabileretarako eraikin publiko eta pribatuen iraunkortasuna eta urbanizazio-lanen iraunkortasuna egiaztatzeko, ingurumen-inpaktuak murrizteko xedez, eta, batez ere, eraikingintza eta eraikuntzaren sektoreak sortutako berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko xedez.

Egiztapen-sistema horretan, kontuan izango dira, besteak beste, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien ekoizpena eta erabilera, eko-diseinua, materialen kudeaketaren optimizazioa eta hondakin gutxiago sortzea eta lurzorua eraginkortasunez erabiltzea.



3.- Aurreko paragrafoan aipatutako arauetan honako hauek jasoko dira gutxienez:

- a) Eraikinak egin eta birgaitzeko proiektuen iraunkortasuna eta urbanizazio-obren iraunkortasuna ebaluatzeko prozedura.
- b) Iraunkortasuna egiaztatzen duen egiaztagirian jarriko beharko den informazioa. Informazio horretan, gutxienez, ingurumen-eragina murrizteko aplikatu diren neurriak eta eraikinen edo urbanizazio lanaren iraunkortasun maila jaso beharko dira.
- c) Neurrien aplikazioa eta iraunkortasun mailaren kuantifikazioa egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko bitartekoak.
- d) Sistemaren kudeaketa, egiaztapena eta kontrola zein erakunde publiko edo pribaturen esku utziko den.
- e) Iraunkortasun-egiaztagiria lortzeko dakartzan betebeharrak eta eskubideak.
- f) Egiaztagiririari eutsi ahal izateko betekizunak; horien artean, erabilitako energia-kontsumoen eta baliabideen akreditazioa jasoko da, egiaztatzeko eta kontrolatzeko erakundeak ikuskatuta.

4.- Herri-administrazioek, beren eraikinen ezaugarriak apurka-apurka aurreko paragrafoan araututako sistemaren arabera ezarritako iraunkortasun-irizpideei egokitzeko, ezarri beharreko neurriak eta epeak jasoko dituzten planak onartuko dituzte.

5.- Baldin eta neurriak onartzen badira eraikinen eta urbanizazio-lanen iraunkortasuna egiaztatzeko sistemaren esparruan, hobariak aplikatuko dira tokiko zerga-araudiaren arabera ordaindu beharreko zenbatekoetan.

2016. urtetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-erabilerarako eraikitzen diren eraikinak diseinatu beharko dira energia-kontsumoa eta kontsumo horrek eragindako emisioak ia zero izateko moduan.

7.- Eusko Jaurlaritzan etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak txostena egingo du bi urtean behin, aurreko paragrafoan ezarritako betebeharraren betetze-mailari buruz.

17. artikulua.- Hiri-ingurunea eta hirigintza-plangintza

1.- Herri-administrazioek ardura hartuko dute emisioen murrizketa irizpide bat izan dadin hirigintza-plangintza idaztean eta arlo horretan erabakiak hartzean, bai eta hiri-eremu berrien urbanizazio-proiektuak diseinatu eta gauzatzeko ere.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako helburuak lortzeko, honako hauek bultzatuko dituzte: hiri-diseinuan eta -arkitekturan printzipio bioklimatikoak baliatzea,



hirigintza-dentsitatea areagotzea, lurzoruaren artifizializazioa minimizatzea, herritarrak zerbitzu guztiak dituzten eremuetan kontzentratzea ahalik eta joan-etorri gutxien egiteko, eta, era berean, eremu horiek garraio-sare eraginkorra izatea.

3.- Halaber, herri-administrazioek egokitu egingo dute gaur egungo hirigintza-plangintza, eta, eguneratze horretan, kontuan hartuko dituzte klima-aldaketari lotutako eraginak, hala nola ibaien uholdeak, itsas maila igotzea, bero-boladak edo biodibertsitatearen galera. Alde horretatik, ardura hartuko dute industrialdeak, herri-administrazioen egoitzak, finantza-zentroak eta beste erabakigune batzuk garraio publikoko sareetara hurbil daitezen.

18. artikulua.- Lurralde-plangintza

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Artezpideetan eta Euskal Autonomia Erkidegoak lurraldea antolatzeko dituen gainerako bitartekoetan, klima-aldaketarekin lotutako alderdiak lurralde-antolamendurako estrategiaren paradigmatariko bat izango dira; batez ere, hirigintza-dentsitatea areagotzea, basomasak gordetzea, hiri-eremuaren hedapena mugatzea eta esparru urrakorretan erabilerak kontrolatzea.

19. artikulua.- Garraioa eta mugikortasuna

1.- Herri-administrazioek garraio bide eraginkorrak eta gutxiago kutsatzen dutenak sustatuko dituzte, kudeaketa-sistemak hobetuko dituzte, eta garraio publikoa erabiltzea, modu eraginkorrean gidatzea, trakzio- eta motor-sistemetan teknologia berriak sartzea eta erregai alternatiboak erabiltzea sustatuko dute.

2.- Administrazio publikoek eta sektore publikoko erakundeek mugikortasun iraunkorreko planak egingo dituzte, norik berea, eta plan horietan lege honetan ezarritako printzipioak jasoko dituzte, emisioak murrizteko helburuak zehaztuta; hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoan arlo horretan onartutako lege-arauaren kalterik gabe.

3.- Eusko Jaurlaritzan garraio arloan eskumena duen sailak, bi urtean behin, helburu horien jarraipen-txostena egingo du, eta txosten hori 10. artikuluan aipatutako Planaren jarraipen-txostenaren osagaietako bat izango da. Klima Aldaketaren Euskal Plana onartzean hasiko dira zenbatzen aipatutako jarraipen-aldiak.

20. artikulua.- Nekazaritza-garapena

1.- Herri-administrazioek emisioen murrizketa bultzatzen duten produkzio-irizpide eta -baldintzak betetzen dituzten nekazaritza-, baso- eta abeltzaintza-ustategiak sustatuko dituzte, bai eta ustiategi horietatik datozen produktuen kontsumoa ere.



2.- Hain zuzen ere, hurrengo baldintzak betetzen dituzten nekazaritza-, baso- eta abeltzaintza-ustiategiak bultzatuko dituzte:

- a) Ongarri kimikoak zentzuz erabiltzea eta, ahal den neurrian, horien ordeztuategitik bertatik edo ingurutik heldutako ongarri organikoak erabiltzea.
- b) Emisioak murrizten laguntzen duten eta ziklo biologikoak ixtera bideratuta dauden produkzio-irizpideen arabera egitea produktuak.
- c) Natura-ingurunea gorde eta zaintzea.
- d) Natura-baliabideak, eta bereziki lurzorua, zentzuz erabiltzea, haren emankortasun-mailak mantenduz eta materia organikoaren maila hobetuz.
- e) Higadura minimizatuko duten eta lurzoruaren materia organikoa babestuko duten nekazaritza- eta baso-jarduera kontserbadoreak baliatzea, hala nola gutxieneko lur-lantzea eta landare-estalkiak.
- f) Ura modu eraginkorrean erabiltzea, uraren nahiz energiaren kontsumoa murrizte aldera.
- g) Ustiategietan lehengai propioak edo ingurumarietatik ekarritakoak kontsumitzea.
- h) Animaliak elikatzeko eredu arrazionalak erabiltzea, hartidura enterikoaren ondoriozko emisioak murriztuko dituzten dietak lehenetsiz.

21. artikulua.- Hondakinen kudeaketa.

1.- Hondakinen kudeaketaren alorreko jardueretan sortutako berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoan arlo honi dagokionez onartutako legediak eta plangintzak honako helburu nagusiak izango ditu:

- a) prebentzioa bultzatzea, hondakinen sorrerari dagokionez
- b) minimizatzea, berrerabiltzea eta birziklatzea bultzatzea
- c) hondakinak horien sorrera eragiten duen produkzio-zikloan berriro sartzea edo hondakin horietan oinarrituta produktuak lortu eta beste produkzio-ziklo batzuetan sartzea ahalbidetzeko tratamendu-prozesuak bultzatzea
- d) lehengaien ordeztu, hondakinetatik sortutako materialen erabilera bultzatzea

2.- Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, herri-administrazioek, hondakinen alorrean dituzten eskumenen arabera, ekintza hauek bultzatuko dituzte, besteak beste:

- a) Hiri-hondakinak eta jarduera publikoetan eta pribatuetan sortutako hondakinak murriztea eta hondakinen kudeaketaren optimizazioa bultzatzea.
- b) Hiri-hondakinen gaikako bilketa gehitzea; batez ere, materia organikoarena eta plastikozko ontziena.



- c) Beste gune batzuetatik heldutako materia organikoaren eta plastikozko ontzien gaikako bilketa sustatzea.
- d) Hondakindegietan botatako hondakin biodegradagarriak murriztea.
- e) Hondakindegietan eta hondakin biodegradagarrien tratamendurako instalazioetan sortutako biogasaren aprobetxamendu energetikoa bultzatzea.
- f) Simaur eta minden erabilera hobetzea.
- g) Nekazaritzako elikagaien sektorean sortutako soberakinen, materia organikoaren, azpiproduktuen eta hondakinen kudeaketa egokia bultzatzea.

22. artikulua.- Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen kudeaketa

Administrazio publikoek eta sektore publikoko erakundeek, bakoitzak bere eskumenen barruan, berotegi-efektuko emisioak murriztu eta desagerrarazteko asmoz natura-ingurunea eta biodibertsitatea babestu eta kudeatzeari dagokionez egindako ekintzek helburu hauek izango dituzte:

- a) Natura-sistemak kudeatu eta zaintzeko politika egokiak onartzea Europar Batasunaren betekizunekin bat etorriz, epe luzera biodibertsitatea kontserbatu eta hobetzeko eta CO₂-ren hustubideak sustatzeko.
- b) Hainbat sektoretan (nekazaritza, eraikuntza eta azpiegiturak, baso-kudeaketa, turismoa) politika eraginkorrak ezartzea, sektore pribatuaren ekintza eta jardunbide egokiak, natura-sistemak gorde, biodibertsitatea zaindu eta emisioak murrizten laguntzen dutenak, saritzeko.
- c) biodibertsitatearen mesederako arintze- eta egokitze-jarduerak planifikatu eta gauzatzea.
- d) Biodibertsitateari eta klima-aldaketari buruzko ikerketa aplikatuko proiektuak eta murrizteko, egokitzeko eta biodibertsitatea kontserbatzeko helburuak sendoago integratzeko beharrezko ezagutza-oinarria sortzea.
- e) Karbono-hustubideak sustatzea; horretarako, berdeguneak eta zuhaitz-eremuak handituko dira hirietan, hiri-eremuetan eta hirietako eraikinetan, espezie autoktonoen erabilera bultzatuz, eta lurzoruen artifizializazioa saihestuko da.
- f) Klima-aldaketaren inguruko irizpideak sartzea biodibertsitatea kontserbatzeko politika eta neurrietan, eta biodibertsitatea kontserbatzeko irizpideak sartzea klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politika eta neurrietan.

23. artikulua.- Fluor-gasak eta haiek darabiltzaten ekipoen merkaturatzearen eta eskuzko erabileraren kontrola

Emisioak murrizteko eta gas fluordunen kontrolik gabeko erabilera kontrolatzeko xedez, gas fluordunak eta haiek darabiltzaten ekipoen merkaturatzearen eta eskuzko erabileraren kontrolari buruzko arauak herri-administrazioei alor horretan esleitzen



dizkieten egitekoak betetzeko jarduerak indartu behar dituzte herri-administrazio eskumendunek, bai eta haiek erabiltzen dituzten profesionalei ziurtagiriak emateko behar direnak ere.

BOSGARREN KAPITULUA.- EMISIOAK MURRIZTEKO BITARTEKOAK SUSTATZEA

24. artikulua.- Emisioak murrizteko teknikak eta teknologiak sustatzea

1.- Herri-administrazioek berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko teknikak eta teknologiak bultzatuko dituzte, jarduera ekonomikoen produkzio-prozesuetan txertatuta, produktuaren edo prozesuaren ziklo osoan eta kuantifikatzeko moduan murriztu ahal izateko emisio horiek. Teknika eta teknologia horietan inbertitzeak onura fiskalak aplikatzea ekar dezake.

2.- Ingurumenaren babeserako proiektuak edo jarduerak gauzatzeko laguntzak edo diru-laguntzak emateko arau edo oinarri arautzaileetan, zenbait balorazio-irizpide ezarriko dira, berotegi-efektuko gasen emisioak kuantifikatzeko moduan murriztea eta/edo murrizketa hori bera lortzea ekar dezaketen ekipamendu-ondasunak eskuratzea ahalbidetzen duten ekoizpen-prozesuen erabilera bultzatzeko.

3.- Halaber, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko xedez, herri-administrazioek beren jardueretan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea sustatuko dute; esate baterako, bideokonferentziak, telelana edo administrazio-izapideak egiteko kudeaketa telematikoa.

25. artikulua.- Berotegi-efektuko gas-emisioen borondatezko murrizketen erregistroa.

1.- Berotegi-efektuko gasen emisioen borondatezko murrizketen erregistroa sortuko da. Erregistro horretan jarduera publiko edo pribatuen titularrak inskribatu ahal izango dira, publikoki jasota egon daitezen berotegi-efektuko gasen emisioa murriztea helburu duten jardueren inguruan zein konpromiso hartu dituzten, eta erregelamenduz ezartzen diren onurak balia ditzaten.

2.- Erregelamendu bidez arautuko dira erregistro horren funtzionamendua, edukia eta erregistroan izena emateko baldintzak. Erregistroa publikoa izango da, ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeko eskubidea, parte-hartze publikorako eskubidea eta justiziarako sarbidea izateko eskubidea arautzen dituen araudiak ezarritako baldintzetan; betiere datu pertsonalak babesteari buruzko legediak ezarritakoaren kalterik gabe.



3.- Erregistroan inskribatzea doakoa izango da, eta inskribatutako jardueren titularrei onura administratiboak ekarriko dizkie; besteak beste, honako hauek:

- a) zerga-alorreko salbuespenak, murrizpenak, kenkariak edo hobariak, ingurumen-alorreko tasak edo zergak ordaintzean.
- b) esleipen-irizpide gisa erabiltzea kontratu publikoetan.
- c) aitortpen publikoak ematea.
- d) balorazio-irizpide gisa erabiltzea laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko prozesuan.

26. artikulua.- Plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko plan, programa eta proiektuen ingurumen-eragina ebaluatzeko prozeduretan, dena delako planak, programak edo proiektuak kliman duen eraginaren ondorioz aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera egindako identifikazio, deskribapen eta ebaluazioak kontuan hartu beharko ditu planak burutzeak eragin ditzakeen berotegi-efektuko gasen emisioak.

2.- Ingurumen-eragina banan-banan ebaluatzeko prozeduraren mende dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen den proiektu ororen sustatzaileek klima-aldaketarekiko urrakortasunaren azterketa eta arrisku hori kudeatzeko eta saihesteko neurriak sartu beharko dituzte ingurumen-inpaktuaren azterketan.

3.- Eusko Jaurlaritzan ingurumen arloan eskumena duen sailak txostena egingo du bi urtean behin, aurreko paragrafoan ezarritako betebeharraren betetze-mailari buruz.

27. artikulua.- Pizgarri publikoak

Herri-administrazioek, norik bere eskumen-esparruan eta lege honetan ezarritako helburuak benetan betetze aldera, emisioen murrizketa eta klima-aldaketarekiko egokitzea sustatzen duten balizko zerga-neurriak aztertuko dituzte, eta klima-aldaketaren aurka borrokatzen laguntzen duten sektoreek egindako ahaleginak eragin, sustatu eta aitortzeko neurriak onartuko dituzte.

28. artikulua.- Erosketa eta kontratazio publiko berdea

1.- Herri-administrazioetako eta sektore publikoko gainerako erakundeetako kontratazio-organoek, zerbitzuak eta hornidurak eskuratzeko eta obrak egikaritzeko kontratuetako administrazio-klausulen agirietan eta baldintza teknikoaren agirietan, lege honetan klima-aldaketaren aurkako borrokaren alorrean ezarritako helburuak lortzen lagunduko duten esleipen-irizpideak, egikaritzeko baldintza bereziak eta klausula edo baldintzak bilduko dituzte.

2.- Aurreko atalean aurreikusitakoa sektore publikoko kontratuei buruzko legerian ezarritakoaren arabera gauzatu da.

29. artikulua.- Karbono-hustubideak

1.- Erregelamendu bidez ezarriko da berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko neurriak hartu behar dituen jardueraren titularrak karbono-hustubideen kudeaketako proiektu bat -biodibertsitatea kontserbatzearekin bateragarria dena- burutu ahal izateko sistema. Karbono-hustubideen kudeaketa-proiektu hori izan daiteke, besteak beste, baso autoktonoak mantendu edo handitzea, biodibertsitatea hobetzeko basogintzako teknikak erabiltzea, edo lurzoruko karbono-kopurua handitzea.

2.- Herri-administrazioek, nork bere eskumen-esparruan, karbono-hustubideen kudeaketaren inguruko jarduerak egin beharko dituzte, honako helburu hauekin:

- a) Landarezarekin lotutako ekintzak egitea, karbonoa finkatzeko ahalmena handitze aldera.
- b) Basoen kudeaketa iraunkorra sustatzea, hustubide-eragina hobetzeko eta basoak espezie autoktonodunak izateko.
- c) Lurzoru degradatuak baso-berritzeko berreskuratzea.
- d) Lurzoruko karbonoaren bilakaera kontrolatzea, eta karbono-kopurua areagotzen laguntzeko neurriak hartzea, esaterako, nekazaritza-jarduera iraunkorra bultzatuz.
- e) Suteak prebenitzeko programak hobetzea.
- f) Antolamendu-agirietan klima-aldaketa aintzat hartzen duten ekosistema naturalak kontserbatu eta lehengoratzeko jarraibideak sartzea.
- g) Berdeguneak handitzea hiri-eremuetan, eta erabilera publikoa eta biodibertsitatearen kontserbazioa bateragarri egiteko moduan kudeatzea.
- h) Higaduraren aurka borrokatzea malda-guneetan landare-estalkiak edo landare-hesiak jarriz edo lurzoruko materia organikoa kontserbatu ahal izateko beste edozein estrategia erabiliz."

SEIGARREN KAPITULUA.- KLIMA-ALDAKETARI EGOKITZEA

30. artikulua.- Klima-aldaketari egokitzea

1.- Herri-administrazioek eta sektore publikoko erakundeek, beren eskumenez eta eginkizunez baliatzerakoan, kontuan izan beharko dute klima-aldaketak izan dezakeen inpaktua, behar diren egokitze-neurriak hartzeko. Alde horretatik, beren



erabakien oinarri izango dira gaiaren inguruan eskuragarri dagoen zientzia-jakintza, urrakortasuna eta inpaktu horren balorazio ekonomikoa.

2.- Eragile pribatuek ere klima-aldaketak beren jardueretan izango duen inpaktua aztertu behar dute, eta beharrezko egokitze-neurriak onartu behar dituzte.

31. artikulua.- Klima-aldaketari egokitzeko programa.

1.- Klima Aldaketaren Euskal Planak klima-aldaketari egokitzeko programa bat izango du, eta honako hauek ezarriko ditu, gutxienez: zein neurri onartu behar diren zehazki, nortzuek izango duten neurri horiek gauzatzeko ardura, zein epetan gauzatu behar diren, eta nola egingo den programaren kontrola eta jarraipena.

2.- Egokitze-programak ezarritako neurrien lehentasunezko helburuak honako hauek izango dira:

- a) Ur-baliabideen, flora eta faunaren, muturreko fenomeno erlazionatuen, airearen kalitatearen eta gizon-emakumeen osasunaren inguruko estrategiak garatzea.
- b) Behar bezala kudeatzea dauden eta egingo diren eremu urbanizatuen eta azpiegituren arriskuak, eta horren osagarri, behar diren ekintza zuzentzaileak egitea.
- c) Arrisku- eta urrakortasun-irizpideak sartzea lurralde-antolamenduan, hirigintzan eta azpiegituren plangintzan.
- d) Ekosistemen erresilientzia, zerbitzuak emateko gaitasuna eta karbonoa harrapatzeko gaitasuna handitzera zuzendutako lurzoru-erabileraren inguruko politikak ezartzea.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko berezko klima-baldintzetara egokitzen ez diren landare-motekiko eremuak saihestea.
- f) Biodibertsitateari eta klima-aldaketari buruzko ikerketa aplikatuko proiektuen arteko integrazioa indartzeko beharrezko ezagutza-oinarria sortzea.
- g) Nekazaritzaren eta arrantzaren sektorean egokitze-estrategia berriak sustatzea.
- h) Ikerketa eta garapena sustatzea, bai eta klima-aldaketak gizon-emakumeen osasunean izan ditzakeen balizko eraginen inguruko informazioa, ebaluazioa eta sentiberatze publikoa biltzen duten ekintza-planak ere.
- i) Ikerketa eta garapena sustatzea, itsasertzeko eremuen eta itsas ekosistemen inguruko ekintza praktikoak bultzatuta.
- j) Nekazaritza-sektorea eta lurreko ekosistemak klima-aldaketara egokitzeko estrategien inguruko ikerketa bultzatzea.
- k) Klima-aldaketari begira, ekosistema bakoitzetik espero den eragin-maila finkatzea, eremu urrakorrenak zehaztuz.



- l) Klima-aldaketari dagokionez etorkizunean espero den egoera eta horrek kontserbazio-eremuetan izan ditzakeen ondorioak aztertzea, behar diren babes-neurriak hartze aldera.
- m) Klima-aldaketaren eraginari buruzko zalantza murrizten eta arrisku-maila onargarrira iristen laguntzea.
- n) Klima-aldaketara egokitzeko neurrien katalogo bat egitea, aukerak identifikatuz eta baliatuz klima-aldaketaren mehatxuak murriztu ahal izateko.
- o) Klima-aldaketarekiko egokitzapena txertatzea lankidetzarako garapenaren politiketan.

ZAZPIGARREN KAPITULUA.- KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO EZAGUTZA ETA BERRIKUNTZA GARATZEA

32. artikulua.- Ezagutza, hezkuntza, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea

1.- Herri administrazioek, beren eskumenen esparruan, iraunkortasunerako ezagutza eta hezkuntza sustatzeko ekintzak bultzatuko dituzte, bai eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea eta klima-aldaketari egokitzea ahalbidetuko duten ikerketa, garapena eta berrikuntzarako ekintzak ere.

2.- Helburu horiek lortzeko, hezkuntzaren, ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren eta ingurumenaren arloetan eskumena duten herri-administrazioek beren jarduerak koordinatuko dituzte, helburu horiek beren plangintza-tresnetan sartzeko.

3.- Halaber, bi urtean behin, hezkuntzaren, ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloetan eskumena duten herri-administrazioek txosten bat argitaratuko dute, jarduerarako lehentasunezko eremuak eta horien inguruan abian dauden ekintzak islatuko dituena. Klima Aldaketaren Euskal Plana onartzen denetik hasiko dira zenbatzen aldi horiek.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoan klima-aldaketa arindu eta aldaketa horri egokitzeko borroka koordinatu eta beharrezko ekimenak onartzeko, Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak komunikazio-bide eta lan-ildo iraunkorrak ezarriko ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari atxikitako zentroekin, Euskadiko zientzia-komunitateak ezagutza erakundeekin etengabe truka dezan sustatzeko.

ZORTZIGARREN TITULUA.- INFORMAZIO ETA PARTE HARTZE PUBLIKOA

31. artikulua.- Informazio eta parte-hartze publikoa



1. Klima-aldaketari buruzko informazioa eskuragarri jarriko da, agintari publikoek gai horren inguruko informazioa eskuratu eta jasotzeko eskubidearen bidez. Informazio hori bildu eta, ondoren, hedatzeko neurriak hartu beharko dituzte.

2. Herritar orok du eskubidea, banaka edo taldean, herri-administrazioei emisioak murrizteko eta klima-aldaketari egokitzeko jarduera-proposamenak egiteko, gai honetan beharrezkoa den arlo publikoaren eta pribatuaren baterako erantzukizuna gauza dadin.

3.- Herri-administrazioek, herritarren proposamenak bideratzeko bideak ezartzeaz gain, udalerri eta ikastetxe iraunkorretan Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en inguruan parte hartzeko egun dauden sareak indartuko dituzte.

34. artikulua.- Herritarrek informazioa jasotzeko eta parte hartzeko bide publikoak.

1.- Herri-administrazioek eta sektore publikoko erakundeek emisioak murrizteko eta klima-aldaketari egokitzeko helburuei buruzko informazioa eta horiek lortzeko programa, ekintza eta neurriei buruzko informazioa sartu eta eguneratuko dute beren web-orri instituzionaletan.

2.- Aurreko atalean aipatutako web-orrietan herritarrek ekarpenak egiteko espazioak egongo dira.

35. artikulua.- Herritarrak sentsibilizatzea

1.- Herri-administrazioek herritarrak klima-aldaketaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak gauzatuko dituzte.

2. Alde horretatik, herri-administrazioek herritarrei klima-aldaketaren eraginen berri emango diete, gai horren inguruan sentsibilizatuko dituzte, eta eragin hori prebenitu eta zuzentzeko moduari buruzko komunikazio-kanpainak egingo dituzte.

Lehen xedapen gehigarria.- Finantzazio publikoa

Herri-administrazioek eta sektore publikoko gainerako erakundeek lege honetan aurreikusitako jarduerak finantzatzeko erabilitako baliabideak ondorengoak izango dira: aurrekontuetan horretarako kontsignatutakoak, Estatuaren eta Europar Batasunaren ekarpenak eta, araudi hau aplikatzearen ondorioz, aurrekontu-erregimeneko legeriaren arabera bideratutakoak.



Bigarren xedapen gehigarria.- Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa

Klima Aldaketaren Euskal Bulegoaren osaera eta funtzionamendu-arauak apirilaren 7ko 77/2009 Dekretuan, edo haren ordezeko araudian, araututa daude.

Hirugarren xedapen gehigarria.- Ordezkaritza orekatua

Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumen Batzordeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko Aholku Batzordeko eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoko klima-aldaketari buruzko berariazko batzordeetan parte hartuko duten pertsonen izendapenari dagokionez, emakume eta gizonen kopurua orekatua izango da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legearen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarren xedapen gehigarria.- Klima Aldaketaren Euskal Plana

Klima Aldaketaren Lehen Euskal Plana lege hau indarrean jarri ondorengo 6 hileko epean onartu beharko da.

Bosgarren xedapen gehigarria.- Emisioen murriztea neurtzeko metodologia

Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, erregelamendu bidez, metodologia bat ezarriko da, berotegi-efektuko gas-emisioen murrizketa modu homogeneoan neurtu ahal izateko, eta arlo honetan helburuak eta aurreikuspenak ezartzeko.

Seigarren xedapen gehigarria.- Emisioak murrizteko helburu banakatuak.

1.- Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, erregelamendu bidez, emisioak murrizteko helburu banakatuak zehazteko prozedura eta metodologia ezarriko dira.

2.- Herri-administrazioek eta sektore publikoko erakundeek murrizte-helburu banakatuak ezarriko dituzte, helburu horiek finkatzeko prozedura eta metodologia arautuko duen erregelamendua indarrean jarri ondorengo urtebeteko epean. Epe hori bi urtekoa izango da 150.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrientzat.

Zazpigarren xedapen gehigarria.- Emisioak murrizteko emaitza banakatuak betetzeko programak

1. Lege honen 13.3. artikuluan aipatzen diren programak helburu banakatuak ezarpena arautzen duen erregelamendua indarrean sartu ondorengo bi urteetan onartu beharko dira.

2.- 150.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek helburu banakatuen ezarpena arautzen duen erregelamendua indarrean sartu ondorengo hiru urteetan jarri beharko dituzte abian aurreko paragrafoan adierazitako planak.

Zortzigarren xedapen gehigarria.- Kanpo-argiztapena eta argi-kutsadura

Lege hau indarrean sartu eta gehienez ere urtebeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek lege honetan eta erregelamenduetan ezarritako manuei egokitzeko plana (15. artikulua) onartu beharko dute. Epe hori bi urtekoa izango da 150.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrientzat.

Bederatzigarren xedapen gehigarria.- Eraikingintza iraunkorra

1.- Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, erregelamendu bidez ezarriko da eraikinen iraunkortasuna eta urbanizazio-obren egikaritzea egiaztatzeko 16.2. paragrafoan aurreikusitako sistema.

2.- Eusko Jaurlaritzan etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak txostena egingo du bi urtean behin, 16.6. artikuluan ezarritako betebeharraren betetze-mailari buruz, 2018. urtetik aurrera.

Hamargarren xedapen gehigarria.- Garraioa eta mugikortasun iraunkorra.

Lege hau indarrean sartu eta bi urteko epean, Eusko Jaurlaritzak mugikortasun iraunkorrari buruzko lege-proiektua aurkeztuko du Legebiltzarrean.

Hamaikagarren xedapen gehigarria.- Ingurumen-eragina banan-banan ebaluatzea

1.- Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, ingurumen-eragina banan-banan ebaluatzeko prozeduraren mende dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen den proiektu ororen sustatzaileek klima-aldaketarekiko eragin eta urrakortasunaren azterketa eta arrisku hori kudeatzeko neurriak (26.2 paragrafoan jasoak) sartu beharko dituzte ingurumen-eraginaren azterlanean.

2.- Betebehar horretatik salbuetsita geratuko dira aurreko paragrafoan ezarritako epean ingurumen-inpaktua banan-banan ebaluatzeko prozedurari ekin dioten proiektuak.

Hamabigarren xedapen gehigarria.- Karbono-hustubideak



Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, sistema bat ezarriko da erregelamendu bidez, jarduera baten titularrak neurriak har ditzan berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko, karbono-hustubideen kudeaketarako proiektu bat eginda.

Xedapen iragankorra.- Pizgarri publikoak

Emisioak murrizteko helburu banakatuak betetzeko programak onartzeko lege honen zazpigarren xedapen gehigarrian ezarri diren epeak igarotzen ez diren artean, balorazio-irizpide hauek jasoko dira udalei eta tokiko beste erakunde publiko batzuei ingurumenaren eta eraginkortasun energetikoaren alorrean jarduerak egin ditzaten laguntzak edo diru-laguntzak emateko arau edo oinarri arautzaileetan: erakunde eskatzaileek izenpetua izatea Alkateen Ituna; klima-aldaketari buruzko ordenantzak onartuta edukitzea; eta jarduera jasota egotea lege honen bidez sortutako berotegi-efektuko gas-emisioen borondatezko murrizketen erregistroan.

Azken xedapenetan lehenengoa.- Erregelamendu bidezko garapena

Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari lege hau garatu eta aplikatzeko xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena.- Indarrean jartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gobernu Kontseiluan aurkezteko.

Gasteiz, 2011ko maiatzaren 3a.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILBURUA.

Izpta.: MARIA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE